

Dantza
Teatro
Zirko

Egitaraua
Programa

Azaroak 16-19
Noviembre 2023




LABO XL Donostiako
espazio eta hizkuntza
eszeniko berrien jaialdia
5. Edizioa


LABO XL Festival de
nuevos espacios y lenguajes
escénicos de San Sebastián
5ª edición

www.labo.eus
[#laboxl5](https://twitter.com/laboxl5)
[@labox.eus](https://www.instagram.com/labox.eus)

Egiako mapa Mapa de Egia



Jaialdiko espazioak Tabakalera Los espacios del festival en Tabakalera



Doako ikuskizunak, LABO Lagunak, eta izen-emateak Espectáculos gratuitos, LABO Lagunak e inscripciones



Ikuskizun gehienak eta jarduera guztiak doakoak dira. Sarrera librea izango da tokiak bete arte. Nahitaez izena eman behar da hitzaldi, tailer eta bestelako jardueretarako, oso erraza da!

La mayoría de los espectáculos y todas las actividades son gratuitos. La entrada será libre hasta completar aforo. Inscripción obligatoria para las ponencias, talleres y otras actividades, ¡es muy fácil!

Aurten «LABO Lagunak» ekimena jarri dugu martxan. 20 euroko tarifa finko bakar baten truke jaialdiko ikuskizun guztietarako sarbidea izango duzu, jaialdia-ri berari laguntzeaz gain. Eskerrik asko!

Este año ponemos en marcha la iniciativa «LABO Lagunak». Con una única tarifa plana de 20€ podrás disfrutar de toda la programación, además de apoyar al propio festival.




Programatutako 19 ikuskizunetik, hurrengoak ez dira sarrera librekoak eta "LABO Lagunak" izan behar zara sartu ahal izateko. · De los 19 espectáculos programados, los siguientes no son de entrada libre y sólo podrás acceder con "LABO Lagunak": Julio Ruiz: Tocar a un hombre, Amahiru: Duzhe gaizki, Funa: Room 22, Ana Cotoré: Stage diving, Bilaka: Mitologia txikiak, Colectivo Glovo: Xenérica, Cía Traspasarte: Máxima Starr.

Sarrerak eta izen-emateak · Entradas e inscripciones: www.labo.eus

NODE

Donostiako dantza, performance eta ikus-entzunezko konpainia da. 2016ean sortua, Ana Barrantesek eta Ion Estalak osatzen dute. Gaur konpainia artista ezberdinek bat egiten duten gune neuralgiko batean bihurtu da. www.node.eus

Es una compañía de danza, performance y audiovisuales de San Sebastián. Creada en 2016, hoy la componen Ana Barrantes e Ion Estala, siendo la compañía el punto neuralgico donde confluyen diferentes artistas. www.node.eus



Kartelaren protagonista La protagonista del cartel

Aurten kartelaren protagonista, eta beraz, inaugurazio egunean jaialdia irekiko duen artista, Ainhoa Usandizaga da. Artista hernaniarrak zuzeneko laguntza jaso zuen jaialdiaren lehen egunean estreinatuko duen "Bihar" piezaren sorkuntzarako. Gainera, Ainhoak egun batez modelo izatearen esperientzia bizi izan zuen kartel ofiziala eta jaialdiaren gainerako euskarri grafikoak sortzeko egin zen argazki saioan.

Este año la protagonista del cartel, y por tanto la artista que abrirá el festival en el día de inauguración, es Ainhoa Usandizaga. La artista hernaniarra recibió un apoyo directo para la creación de su pieza "Bihar", que estrenará el primer día del festival. Además, Ainhoa vivió la experiencia de ser modelo por un día durante la sesión de fotos que se realizó exclusivamente para crear el cartel oficial y el resto de soportes gráficos del festival.

Argazkiak Fotografías

LABO XL5 Kartela · Cartel. Dantzaria · Bailarina: Ainhoa Usandizaga / Argazkia · Fotografía: Angie Luna / Artea · Arte: Ion Estala. Besteak · Resto: Ane Berriotxo / Konpainiek ekarritako argazkiek autore ezberdinak dituzte · Las fotografías aportadas por las compañías tienen diferentes autores.

Lantaldea Equipo

Zuzendaria · Director: Ion Estala
Ekoizpen burua · Jefa de producción: Ana Barrantes
Ekoizpena · Producción: Puy Barral, Paula Parra, Iosu Yeregui
Teknikari burua · Jefe técnico: Iñaki Iriarte
Bideoografoa · Videógrafo: Jesús Lacorte
Argazkilaria · Fotógrafa: Maitane Campos
Ekoizpen teknikoak · Producción técnica: Elisabeth Hermoso, Peru Olaberria, Kepa Galbete

Nor Nori Nork

Antolatzaileak · Organizadores:
NODE Kultur Elkartea, LABO

Babesleak · Patrocinadores:
Kutxa Fundazioa, Eusko Jaurlaritza · Gobierno Vasco
Gipuzkoako Foru Aldundia · Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostiako Udala · Ayto de San Sebastián

Laguntzaileak · Colaboradores:
Gipuzkoako Dantzagunea, Tabakalera, EKE, ADDE, Circula!, Festival DZM, SAREA, Atzegi, Noticias de Gipuzkoa, Noiz Agenda, A Room in The City, Drunkat, BSK Legal & Fiscal, Insalus, Dabababa, Le Bukowski.

LABO

Espazio irekiak sortzeko helburuarekin sortzen da, mugimenduko arte garaikideen proposamenek eta haien sorkuntza-prozesuek aurkezteko leku bat izan dezaten. Hizkuntza eszeniko berriak espazio eszeniko berrietan, non ikusleek, sortzaileek, kultur eragileek eta erakundeek elkarri eskua ematen dioten. LABO hiru ziklotan banatzen da:

- LABO GO: Sorkuntza prozesuen erakuslelhoia.
- LABO UDA: Udako programa.
- LABO XL: Urteko jaialdia.

Nace con el objetivo de crear espacios abiertos para que diferentes propuestas de las artes del movimiento contemporáneas, y sus procesos de creación, tengan un lugar donde presentarse. Nuevos lenguajes escénicos en nuevos espacios escénicos donde el público, los y las creadoras, los agentes culturales y las instituciones se dan la mano. LABO se divide en tres ciclos:

- LABO GO: Escaparate de procesos de creación.
- LABO UDA: Programa de verano.
- LABO XL: El festival anual.

LABO XL5

Gure jaialdiak gorputza eta mugimendua sorkuntza-aren ardatz nagusi gisa erabiltzen dituzten adierazpen artistikoetan jarrita du arreta. 2019tik, LABO XLren 4 edizio egin ditugu, eta, guztira, 57 konpainia igaro dira bertatik. 50 ikuskizun baino gehiago ikusi ahal izan ditugu, baita mota guztietako topaketa profesional paraleloak ere. LABO XLren bosgarren edizioa 2023ko azaroaren 16tik 19ra izango da, ostegunetik igandera. Arte biziak ospatzeko 4 egun, dantzaz, antzerki eta zirku garaikideaz beteak, jarduera profesionalz gain.

Edizio honetan 19 ikuskizun, 2 hitzaldi, topaketa profesional bat eta mugimendu-tailer bat ditugu programatuta, baita hainbat topagune eta jarduera paralelo ere. Aurten, inoiz baino gehiago, jaialdiak presentzia unibertsala du tokiko, nazioko eta nazioarteko proposamenekin. Euskal konpainiek eta euskarazko lanek Europako hainbat tokitako proposamenekin bat egiten dute, eta, gainera, emakume sortzaileen lana erakusten dute eremu eszeniko guztietan: zuzendari, ekoizle edo teknikari gisa.

Nuestro festival tiene el foco puesto en las expresiones artísticas que utilicen el cuerpo y el movimiento como eje principal de creación. Desde 2019 hemos realizado 4 ediciones de LABO XL por donde han pasado un total de 57 compañías y hemos podido disfrutar de más de 50 espectáculos, más todo tipo de encuentros profesionales paralelos. La quinta edición del festival tendrá lugar del jueves 16 al domingo 19 de noviembre de 2023. 4 días de celebración de las artes vivas, repletos de danza, teatro y circo contemporáneo además de actividades profesionales.

Esta edición tenemos programados 19 espectáculos, 2 ponencias, un encuentro profesional y un taller de movimiento, además de varios puntos de encuentro y actividades paralelas. Este año, más que nunca, el festival tiene presencia universal con propuestas tanto locales, nacionales como internacionales. Compañías vascas y trabajos en euskera se dan la mano con propuestas procedentes de diferentes puntos europeos que además visibilizan el trabajo de las mujeres creadoras en todos los ámbitos escénicos; como directoras, productoras o técnicas.

Zeruertza: aurtengo lema eta filosofia Horizonte: El lema y filosofía de este año

Urte pandemikoaren eta haren erresakaren ondoren, zainduz eta indarrak hartuz, gure aurrean dugun etorkizunean murgiltzeko prest gaude. Zeruertz laranja eta distiratsu batean murgildu gaitezen, bere energia eta argia xurgatu, eta mundu dirdaitso berri horren uretan igeri egin dezagun. Berpiztu gaitezen, berri gaitezen. Afrodita Greziako itsasoetako aparretik jaio zenean egin zuen bezala, aurtengo kartelak adierazten duen bezala.

Después del año pandémico y su resaca, cuidándonos y cogiendo fuerzas, estamos preparados para zambullirnos en un futuro cercano. Sumerjémonos en un naranja y brillante horizonte, absorbamos la energía, su luz y nademos por las aguas de un nuevo mundo reluciente. Renazcamos, emerjamos renovados. Tal y como lo hizo Afrodita cuando nació de la espuma de los mares griegos. Tal y como lo representa el cartel de este año.

Bileratxoak

5. edizio honetan "Bileratxoak" (Artistaren eta programatzailearen txokoa) ospatuko dugu bigarren urte jarraian. Topaketa hau azaroaren 17an, ostirala, ospatuko da jaialdiaren programazio profesionalaren barruan. Jardunaldi honetan, modu lasai eta seguruan, negozio-mahai irisgarriak eta hurbilak sortuko dira. Mahai bakoitzean konpainia bat eta programatzaile bat egongo dira, elkarrizketa eta komunikazioa zuzena, organikoa eta naturala izan dadin.

En esta 5ª edición celebramos por segundo año consecutivo "Bileratxoak" (El rincón del artista y los y las programadoras). La jornada se celebrará el viernes 17 de noviembre dentro de la programación profesional del festival. Encuentros donde de forma tranquila y segura generar unas mesas de negocio accesibles y cercanas. Cada mesa albergará una compañía y un programador o programadora, haciendo que el diálogo y la comunicación sea directa, orgánica y natural.

Egonaldi artistikoak Residencias artísticas

Aurten LABO GO jardunaldi bat eskainiko dugu jaialdiaren barne, artisten sorkuntza prozesuei atek irekiz. Programazioan presentzia izatea nahi dugu eta, horrela, LABO GOK urteko gainerako egunetan eskaintzen duena erakutsi.

Lehenengoa, bigarren urte jarraian Circula! plataformarekin elkarlanean egindako lanaren emaitza da. ADDErekin (Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte) batera, gure lehen egoitza artistikoa eman dugu. Rebeca Carrera andaluziarren "Señora" proiektua hautatu genuen eta Gipuzkoako Dantzagunearen lankidetzari esker euren espazioetan lan egingo du. Hau izango da eskainiko den lehen erakuskaldia.

Bigarrena, Gipuzkoako Dantzaguneari esker, Cruceiros Paraíso jaialdian parte hartzen du lehen aldiz. Honi esker, Galiziako komunitateak loturak eta zubiak egin ditzazkete kanpoko beste eragile batzuekin. Eva Comesaña artista galiziarra izango dugu Gipuzkoako Dantzaguneari lanean eta bera izango da bigarren erakuskaldiaren protagonista.

Este año dedicaremos una jornada al formato LABO GO abriendo las puertas a los procesos de creación. Unas muestras que creemos deben tener una presencia dentro de la programación y así, mostrar lo que LABO GO ofrece durante el resto del año.

La primera será el resultado de nuestro segundo año colaborando con la plataforma Circula! (Tren de creación y formación en danza). Hemos concedido, junto con ADDE (Asociación de Profesionales de la Danza del País Vasco), nuestra primera residencia artística. El proyecto seleccionado fue "Señora" de la andaluza Rebeca Carrera y gracias a Gipuzkoako Dantzagunea podrá trabajar en sus espacios. Está será la primera de las muestras.

La segunda, gracias a Gipuzkoako Dantzagunea, el festival colabora con Cruceiros Paraíso por primera vez. Esta plataforma permite establecer conexiones y puentes a la comunidad de Galicia con agentes externos. Tendremos a la artista gallega Eva Comesaña trabajando en Gipuzkoako Dantzagunea y ella será la protagonista de la segunda muestra de la jornada.

Sareak Redes

LABO XLren ezaugarria beste kultura-erakunde batzuekin zubiak sortzeko duen gaitasuna da, eta, horrela, gure panorama aberasten du bere emaitzekin.

• Kutxa Fundazioa: LABO ez litzateke posible izango Kutxa Kulturaren baldintzarik gabeko laguntzarik gabe. Kutxaren kultur-egoitzak hasieratik lagundu du proiektu hau, eta LABO bisitatzen duten artista guztiak igarotzen diren etxea da, LABO GO eta UDA jardunaldi guztiak hartzeaz gain.

• SAREA: Euskadiko Antzoki Sareak lehen aldiz parte hartzen du jaialdian jardunaldi profesionaletako bitan: Bileratxoak babesten eta euskal dantzaren zirkuituari buruzko hitzaldi bat eskainiz.

• Gipuzkoako Dantzagunea: Bi ekintza ildo lantzen ditugu Gipuzkoako dantzaren etxearekin. Sorkuntza-prozesuei laguntzea eta horiek jaialdian erakustea, eta jardunaldi profesionalen barruan egingo den

ponentzia kudeatzea. Lankidetzari honek esker, aurten Javier Mosquera izango du gure artean.

EKE (Euskal Kultur Erakunde): Jaialdiak EKErekin kolaboratzen du lehen aldiz. EKEren helburua euskal kultura babestea da eta elkartzeko honek Bilaka eta Traversée Dantza Konpainia jaialdian izatea ahalbidetzen du.

Festival DZM (Caceres): Hirugarren urte jarraian, Caceresko DZM dantza jaialdiko "Elkarrizketa garaikideak plataformaren" epaimahaikide gara. Sari gisa, aukeratutako piezak gure jaialdian programatzen dira. Aurten Ana Cotoré eta Collectif Tröika etorriko zaizkigu bisitan.

Atzegi: Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkartearekin elkarlanean arituko gara aurten ere. Elkarteko kideek jaialdiaren ekoizpen lanetan lagunduko dute, programazioaz gozatzear gain.

Noticias de Gipuzkoa: Lehen egunetik, Noticias de Gipuzkoa hedabide ofiziala izan da. Aurten ere, jaialdiari estaldura emateko komunikazio-plan bat diseinatuko dugu elkarrekin.

Si algo caracteriza a LABO XL es su capacidad de generar puentes con otros entes culturales y así, enriquecer nuestro panorama con sus resultados.

• Kutxa Fundazioa: LABO no sería posible sin el apoyo incondicional de Kutxa Kultur. La sede cultural de Kutxa ha acompañado este proyecto desde los inicios y es la casa por donde pasan todos los artistas que visitan LABO, además de acoger todas las jornadas LABO GO y UDA.

• SAREA: La Red de Teatros de País Vasco colabora por primera vez en el festival en dos de las jornadas profesionales: apoyando Bileratxoak y ofreciendo una ponencia sobre el circuito de danza vasco.

• Gipuzkoako Dantzagunea: Trabajamos dos líneas de acción con la casa de la danza de Gipuzkoa. El apoyo a los procesos de creación y sus muestras en el festival, y la gestión en conjunto de la ponencia que dará Javier Mosquera dentro de las jornadas profesionales.

• EKE (Euskal Kultur Erakunde): Por primera vez, el festival colabora con EKE, el Instituto Cultural Vasco del País Vasco Francés, que tiene como objetivo el apoyo de la cultura vasca. Esta unión hace posible poder contar con las compañías Bilaka y Traversée Dantza Konpainia.

• Festival DZM (Cáceres): Por tercer año consecutivo, somos jurado de la "Plataforma diálogos contemporáneos" del festival de danza cacereño DZM. Como premio, las piezas seleccionadas son programadas en nuestro festival. Este año nos visitan Ana Cotoré y Collectif Tröika.


• Atzegi: Un año más colaboramos con la asociación guipuzcoana en favor de las personas con discapacidad intelectual. Asociados ayudarán en labores de producción del festival además de disfrutar de la programación.

• Noticias de Gipuzkoa: Desde el primer día, Noticias de Gipuzkoa ha sido el medio oficial. Un año más, diseñaremos conjuntamente un plan de comunicación para dar cobertura al festival.

Eskerrak Agradecimientos

Eskerrik asko LABO errealitate bat egiten duzuen guztioi, familia hau gabe hau ez litzateke posible izango. Gehienok lehen egunetik laguntzen gaituzue eta esker oneko hitzak besterik ez ditugu. Zuei guztioi, berriei eta betikoei, eta beti gurekin doan publikoari, mila esker bihotz-bihotzez!

Gracias a todos y todas las que hacéis LABO una realidad, sin esta familia esto no sería posible. La mayoría nos acompañáis desde el primer día y no tenemos más que palabras de agradecimiento. A todos y todas vosotras, a las nuevas y a las de siempre y al público que nos acompaña siempre ¡mil gracias de todo corazón!



Ainhoa Usandizaga

Bihar

Euskadi · País Vasco

Dantza garaikidea · Danza contemporánea / 15' / TP
Og 16 J 12:30 Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza
Erabateko estrenaldia · Estreno absoluto

Egunerokotasuneko gauza txikiei buruz hitz egiten du. Gure benetako helburura iritxi aurretik denbora okupatzeko egiten ditugun hainbat akziori garrantzia ematen die. Pieza honen bitartez nere indarrak eta ahuleziak landu nahi izan ditut; itxaroten geratu ordez, beldur hauei aurre egin eta fisikizatu. Biharko utziz inoiz bukatua izango ez liteken guzti honi denbora eta espazio txiki bat dedikatu.

Habla de las pequeñas cosas cotidianas. Da importancia a distintas acciones que llevamos a cabo para ocupar el tiempo antes de afrontar nuestro objetivo real. A través de Bihar quiero trabajar mis fuerzas y debilidades; hacer frente a estos miedos y fisicalizarlos en vez de quedarme a la espera de que pasen las cosas. Dedicarle un pequeño espacio y tiempo a todo esto que no acabaría si siguiera dejándolo para mañana.

Zuzendaritza, autorea, antzezlea · Dirección, autora, intérprete: Ainhoa Usandizaga / Laguntza · Asistencia: Igor Calonge, Nekane Mendizabal



Julio Ruiz

Tocar a un hombre

Andaluzia · Andalucía

Dantza garaikidea, flamenkoa
Danza Contemporánea, flamenco / 55' / +12
Og 16 J 19:00 Tabakalera / Sala Z Aretoa
Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi

Bai, gizon bat naiz, nire begiek gaztainondo baso bat diruditen arren, orain gorri-gorri daude. Bai, gizon bat naiz, eta ia bi metroko gorputz hau orbainez beteta dago zure inzialekin. Bai, gizon bat naiz, baina ez dakit zer esan nahi duen, nahiz eta nire azalak kontrakoa esan. Bai, gizon bat naiz, gizon horiek guztiak, nahiz eta haietako inor ukitzen ez jakin.

Sí, soy un hombre, aunque mis ojos parezcan un bosque de castaños, ahora están completamente rojos. Sí, soy un hombre, y este cuerpo de casi dos metros está repleto de cicatrices con tus iniciales. Sí, soy un hombre, aunque no sé qué significa serlo, aunque mi piel diga lo contrario. Sí, soy un hombre, todos esos hombres, aunque no sepa tocar a ninguno de ellos.

Idea, zuzendaritza · Idea, dirección: Julio Ruiz / Koreografía, antzezleak · Coreografía, intérpretes: Julio Ruiz, Javier De La Asunción / Banaketa, ekoizpena · Distribución, producción: Cal Producciones



Eva Comesaña

Perder a lingua

Galizia · Galicia

Dantza garaikidea, sortze-prozesua
Danza contemporánea, proceso de creación / 30' / TP
Og 16 J 17:30 Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza

Honako hauekin lankidetzan · En colaboración con: Gipuzkoako Dantzagunea, Cruceiros Pasaiño.

Mintzamenaz hitz egiten du soinu, gorputzaren eta irudien bidez. Hizkuntza bat bere hitzak eta ahoskera baino gehiago da. Hizkuntza batek historia, lurraldea eta komunitatea gordetzen ditu. Bizi izan zituen garaiak gordetzen ditu, jaio zen hizkuntzaren oroimena gordetzen du eta bertan bizi izan ziren pertsona guztien kosmos soziala gordetzen du.

Trata del habla a través del sonido, el cuerpo y las imágenes. Un idioma es más que sus palabras y pronunciación. Guarda historia, territorio y comunidad. Guarda los tiempos que sobrevivió, guarda la memoria de la lengua de la que nació y guarda el cosmos social de todas las personas que la habitaron.

Antzezlea · Intérprete: Eva Comesaña / Musikaria · Músico: Rubén Fernández / Artista plastikoa · Artista plástica: Eva Antelo



Amahiru

Duzhe gaizki

Euskadi · País Vasco

Antzerkia · Teatro / Euskara / 50' / TP
Og 16 J 21:00 Dabadaba

Bi antzezlan dira baina bat da. Lehenengoa oso "gaizki" bukatzen da hurrengoa "duzhe dobre" (oso ondo) has dadin. Eta ezberdinak dira, baina mundu berdinean bizi dira. Gu hiruon munduan. Erlazio irekien munduan, betirako amodioa amaitutzat eman duten pertsonen munduan, galduta daudenen munduan, tokiz kanpo daudenen munduan, aitasun ezberdin bat bizi dutenen munduan. Bi aulki eta bi kaxarekin sortutako mundua.

Son dos obras pero es una. La primera termina "gaizki" (mal) para que la siguiente empiece "duzhe dobre" (muy bien). Son diferentes pero viven en el mismo mundo. En nuestro mundo. En el de las relaciones abiertas, de las personas que han dado por perdido el amor, el de las personas perdidas en la vida, de los que están fuera de lugar, de los que viven una paternidad diferente. Un mundo creado con dos sillas y dos cajas.

Antzezleak · Intérpretes: Eneritz Sanchez, Iñigo Elosegi, Iñaki Cid / Zuzendaria · Director: Joserra Fachado / Autorea · Autor: Iñaki Cid



Rebeca Carrera

Señora

Andaluzia · Andalucía

Dantza garaikidea, sortze-prozesua
Danza contemporánea, proceso de creación / 30' / +18
Og 16 J 18:00 Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza

Honako hauekin lankidetzan · En colaboración con: Circula!, ADDE Dantza, Gipuzkoako Dantzagunea.

Gorteatze bat da helduaroan. Denboraren poderioz eta zauriekin beste zerbait bihurtu den gorputzari balioa emateko modu bat. Zaila da errekonozitzea, lehen dena txukun zegoen tokian munstroa agertzen da. Oraindik nola ebatzi ez dakiguna da gorputz horrek oraindik liluratu egiten duela, erotizatu eta desiratu egiten duela.

Es un cortejo en la edad adulta. Una forma de poner en valor el cuerpo que con el paso del tiempo y las heridas se ha transformado en otra cosa. Cuesta reconocerse, lo monstruoso aparece donde antes todo estaba en orden. Lo que no sabemos todavía cómo resolver es que ese cuerpo aún seduce y es seducido, se erotiza y desea.

Sorkuntza, antzezlea · Creación, intérprete: Rebeca Carrera / Laguntza · Acompañamiento: Alberto Cortés



NODE

Ama dok + Batu

Euskadi · País Vasco

Dantza garaikidea, kantua zuzenean
Danza contemporánea, canto en directo / 20' / TP
Or 17 V 13:30 Tabakalera / Artisten gunea / Platoa
Erabateko estrenaldia · Estreno absoluto

Gure ondarearen, orainaren eta etorkizunaren aldarrikapena da. Begirada etorkizunera jarria, jauzi egin eta argitasunez bete gaitzan. Izan ginena, garena eta izango garena batzen ditu, testuinguru artistiko berean. Gure sustraiak ahaztu gabe, gure geroa ospatzen du denboran zehar egindako bidaiarekin, belaualdi arteko gorputzen, mugimenduen, musikaren eta jantzien barrena.

Es la celebración que comparte nuestro legado, el presente y el futuro. La mirada enfocada al futuro para dar un salto e inundarnos con su luz. Suma lo que fuimos, lo que somos y lo que seremos en un mismo contexto artístico. Conmemora nuestras raíces y celebra nuestro porvenir con un viaje en el tiempo a través de cuerpos generacionales, su movimiento, la música y el vestuario.

Antzezleak · Intérpretes: Myriam Perez Cazabon, Borja Bordonabe, Iosu Yeregui / Ekoizpena · Producción: Ana Barrantes / Zuzendaritza · Dirección: Ion Estala



Marc Fernández & Julio León (ÍOR)

Katalunia · Catalunya

Dantza garaikidea · Danza contemporánea / 15' / TP
Or 17 V 17:30 Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza

Ez du axola nondik datozen, ez nora doazen, ezta benetan gertatzen ote den jakitea ere, parentesi bat besterik ez da. Topaketa bat, gure imajinarioan luzatzen dena eta elkarri laguntzen eta eragozten dioten kontrako indarren espiral batera eramaten gaituena. In crescendo bidaia gogortasunaren eta hauskortasunaren artean, bi gorputz sinbiosi perfektuaren bila, aurrera egiten jarrai dezaten.

No importa de dónde vienen ni adónde van, ni tan sólo saber si realmente llega a suceder, es simplemente un paréntesis. Un encuentro efímero que nos arrastra a una espiral de fuerzas contrarias que se ayudan y se impiden mutuamente. Un viaje in crescendo entre dureza y fragilidad, dos cuerpos en busca de la simbiosis perfecta para seguir avanzando.

Zuzendaritza · Dirección: Marc Fernández / Koreografía · Coreografía : Marc Fernández, Julio León / Antzezleak · Interpretación: Marc Fernández, Noé Ferey



Bilaka Mitologia txikiak

Ipar Euskal Herria · País Vasco Francés
Dantza, musika zuzenean, antzerkia
Danza, música en vivo, teatro / Euskara / 60' / TP
Or 17 V 20:30 Egia K.E. / Gazteszena
Estrenaldia estatuan · Estreno estatal

EKErekin (Euskal Kultur Erakundea) elkarlanean ·
En colaboración con EKE (Insituto Vasco de Cultura).

Euskal mitologia, ihauteriko erritualak, kondairak, legendak eta beste istorio batzuk dira pieza honen osagaiak. Lau dantzari eta musikari batek liluragarriak zein izugarriak diren hamaika pertsonai bitxi taularatzen dituzte. Gure irudimen kolektiboa osatzen duten ipuin eta kondairak berrikusten dituzte.

Mitología vasca, rituales de carnaval, leyendas, fábulas y otras historias son los ingredientes de esta pieza. Cuatro bailarines y un músico ponen en escena un sinfín de personajes curiosos tan fascinantes como terribles. Revisan los cuentos y leyendas que conforman nuestra imaginación colectiva.

Zuzendaritza artistikoa · Dirección artística: Mathieu Vivier / Koreografía · Coreografía: Bilaka Kolektiboa / Antzezleak · Intérpretes: Arthur Barat, Zibel Damestoy, Ioritz Galarraga, Oihan Indart / Musikaria · Músico: Vianney Desplantes



Funa Room 22

Italia

Dantza garaikidea · Danza contemporánea / 30' / TP
Or 17 V 18:00 Tabakalera / Kutxa Fundazioa Kluba
Estrenaldia estatuan · Estreno estatal

Koronabirusak eragindako lehen konfinamenduan artisten arteko bizikidetzeta behartutik sortu da pieza hau. Taburetea espazio mugatu bat da, eta bertan gizabanakoen arteko komunikazioaren kontzeptua aztertzen dugu gizarte-urruntzearen garaian. Bi artistak espazio intimo bat diseinatzeko saiatzen dira, oreka eta komunikazio unibertsa mantentzeko.

Esta pieza nace de la convivencia forzada entre artistas durante el primer confinamiento por el Coronavirus. El taburete representa un espacio limitado donde exploramos el concepto de comunicación entre individuos en tiempos de distanciamiento social. Las dos artistas intentan diseñar un espacio íntimo para mantener el equilibrio y una comunicación universal.

Koreografia, antzezleak · Coreografía, intérprete: Marianna Moccia, Valeria Nappi / Laguntzailea · Asistente: Maria Anzivino / Dramaturgia · Dramaturgia: Martina di Matteo



Traversée Dantza Konpainia Komunikazio Inkomunikazio

Ipar Euskal Herria · País Vasco Francés
Dantza garaikidea · Danza contemporánea / 25' / TP
Lr 18 S 13:30 Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza

EKErekin (Euskal Kultur Erakundea) elkarlanean ·
En colaboración con EKE (Insituto Vasco de Cultura).

Mikel Laboaren "Komunikazio inkomunikazio" pieza enblematikoan oinarritzen da solo hau. Laboaren ahots sarkorri begira, dantza polimorfoa da, etengabe aldatzen, inprobisatutako partitura balitz bezala. Artifiziorik gabeko dantza bat, oroimenaren nozioaz zeharkaturik.

Este solo se basa en la emblemática pieza "Komunikazio inkomunikazio" de Mikel Laboa. Mirando la voz penetrante de Laboa, la danza es polimorfa, constantemente cambiante, como si de una partitura improvisada se tratara. Un baile sin artificios atravesado por la noción de la memoria.

Koreografia, antzezlea · Coreografía, intérprete: Mizel Thérét / Laguntza artistikoa · Asistencia artística: Johanna Etcheverry / Ekoizpena · Producción: Traversée Elkartea



Ana Cotoré Stage Diving

Aragoi · Aragón

Dantza garaikidea · Danza contemporánea / 20' / TP
Or 17 V 19:00 Tabakalera / Sala Z Aretoa
Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi

LABO XLk DZM Jaialdiaren (Caceres) 2022. edizioan epaimahaikide gisa hautatutako ikuskizuna · Espectáculo seleccionado por LABO XL como jurado en la edición 2022 del Festival DZM (Cáceres).

"...eta goian zaude, eszenatokian, salto egitekotan. Hala ere, ez itsaso bertikal horretarantz abiatzeko unean, baizik eta jauziaren puntu gorenera iritsi eta erorketa ezinbestean hasten denean, zeure buruari galdetzen diozu: kenduko al dira?"

"...y estás arriba, en el escenario, a punto de saltar. Sin embargo, no justo en el momento de lanzarte hacia ese mar vertical, si no en el momento en el que llegas al punto máximo del salto y comienza irremediablemente la caída, te preguntas: ¿se apartarán?"

Sorkuntza, koreografia, testuak eta antzezlea · Creación, coreografía, textos e interpretación: Ana Cotoré



Mari Paula Escambo

Kantabria · Cantabria
Dantza garaikidea · Danza contemporánea / 20' / TP
Lr 18 S 17:30 Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza
Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi

Eskanbo dantza zitriko eta tropikaleko obra bat da. Lanak zentzumenen irekitasuna funtsezko rol gisa adierazten du, publikoa usain, kolore, erritmo eta mugimendu joko batera gonbidatuz. Bere testuinguru tradizionaletik eszenikora 50 laranja eramatean, proposamenak egunerokotasunaren nozioa zabaltzen du eta pertzepzio estetiko eta sensorial freskoak proposatzen ditu.

Escambo es una obra de danza cítrica y tropical. La obra manifiesta la apertura de los sentidos como un rol sustancial, invitando al público a un juego de aromas, colores, ritmos y movimiento. Al trasladar 50 naranjas de su contexto tradicional al escénico, la propuesta amplía la noción de la cotidianidad y propone frescas percepciones estéticas y sensoriales.

Sorkuntza, zuzendaritza · Concepción y dirección: Mari Paula / Koreografía · Coreografía: Mari Paula, Wody Santana / Ekoizpena, banaketa · Producción, distribución: Iñaki Díez Distribución



Colectivo Glovo

Xenérica

Portugal, Galizia · Portugal, Galicia

Dantza garaikidea · Danza Contemporánea / 20' / TP
Lr 18 S 18:00 Tabakalera / Sala Z Aretoa
Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi

Ni modu generikoan, zakar, arruntean ibiltzen naiz. Oharkabean pasatu nintzen, milioika aldiz pasatu bainintzen hemendik. Beti naizen berbera naiz, errepikatua, atzo izan nintzena eta bihar izango naizena. Oinez noa, negua desiratzen sutara biltzeko. Ez harritu bihar ere hemen banago, itzuli nahi dut, beti.

Yo camino, de modo genérico, vulgar, común. Pasé desapercibida porque ya pasé por aquí, millones de veces. Soy la misma que soy siempre, repetida, la que fui ayer y la que seré mañana. Camino sobre mis pies, deseando el invierno para juntarme al fuego. No te sorprendas si mañana también estoy aquí, pretendo volver, siempre.

Sorkuntza, zuzendaritza · Creación y dirección: Esther Latorre, Hugo Pereira / Antzezlea · Intérprete: Esther Latorre / Kudeaketa · Gestión: Manu Lago



Compañía X

Eta orain zer?

Euskadi · País Vasco

Dantza garaikidea · Danza Contemporánea / 17' / TP
Ig 19 D 18:00 Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza

Pieza zerbait kontatzearen nahiagatik jaio da. Gure artean, denboraren joanaldiaz mintzateagatik. Urteen joan etorria. Zer etorriko da gero? Galdera hau gure kopeta aseetatik ezin ezabatu izanagatik. Zerbait hasi eta behin eta berriz bertan beheran uzteari buruz hitz egitea erabakitzen dugu eta elkarrekin sortu eta hazteko zergati pertsonalez askatzera baldintzaturik gaudela ohartzen gara.

La pieza nace de la necesidad de contar, de dialogar entre nosotras sobre el paso del tiempo y el paso de los años. Nace del hecho de no conseguir borrar de nuestras frentes saturadas la pregunta ¿qué vendrá después?. Decidimos hablar sobre la insistencia en la que a veces nos vemos atrapadas al comenzar algo y abandonarlo una y otra vez. Llegamos a la conclusión de que el desasimiento de los motivos propios es condición indispensable para crear y crecer.

Sorkuntza, antzezleak · Creación, intérpretes: Ada Continente, Saray Garzia Hazas, Nadia Yagoubi / Ekoizpena · Producción: Compañía X



Cía Traspasarte

Máxima Starr


Valentziako Erkidegoa · País Valencià

Antzerkia · Teatro / Castellano / 60' / +16
Lr 18 S 19:00 Tabakalera / Kutxa Fundazioa Kluba
Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi

24 ordutan pop izar baten igoera eta erorketari buruzko tragikomedia musikala. Max Estrella ("Luces de Bohemia") eta protagonistaren arteko paralelismoa. Bat-bateko arrakasta, haurtzaroko ametsak eta gure garaiko ispilu ahur batean islatutako autoboiakota aztertzen ditugu.

Una tragicomedia musical sobre el ascenso y caída de una estrella del pop en 24 horas. Un paralelismo entre Max Estrella ("Luces de Bohemia") y la protagonista. Indagamos en el éxito repentino, los sueños de la infancia y el auto boicot reflejado en un espejo cóncavo de nuestros tiempos.

Idea, zuzendaritza artistikoa, antzezlea · Idea, dirección creativa, intérprete: Sara Ruiz Ferrer / Zuzendaritza eszenikoa · Dirección escénica: José Maleno / Ikus-entzunezko antzezlea · Intérprete audiovisual: Jaime Lorente / Musika · Música: Rev Silver / Ekoizpena · Producción: Blanca Escobar



Rojo Telón

Transir

Euskadi, Galizia · País Vasco, Galicia

Zirko garaikidea, musika zuzenean
Circo contemporáneo, música en vivo / 70' / TP
Ig 19 D 18:30 Tabakalera / Prisma

Transir eraldaketari, aldaketari, bizitzari eta heriotzari buruzko jolas bat da. Zirkuari, egunero bezala, gure bizitza arriskuan jartzen dugu. Gure giza izaera onartzeak, azkenean dena amaitzen dela eta dena ez dagoela gure esku onartzeak, agian, orainaldian pentsatzeko aukera emango digu, zer garen, zer sentitzen dugun eta zer nahi dugun pentsatzeko. Zirkuaren hizkuntzari zuzeneko musika gehitzen zaio.

Transir es un juego sobre la transformación, el cambio, la vida y la muerte. En el circo, como cada día, nos jugamos la vida. Aceptar nuestra condición humana, que al final todo se acaba y que no todo depende de nosotras quizá nos permita pensar en el presente, en lo que somos, sentimos y queremos. Al lenguaje del circo se suma la música en directo.

Antzezleak · Intérpretes: Ana Cuervas, María Salmerón, Xandra Arostegui, Begoña Peñaranda / Zuzendaritza, dramaturgia, koreografia · Dirección, dramaturgia, coreografía: Marta Alonso



Colectivo Las Palomas

¿Qué?

Katalunia · Catalunya

Dantza garaikidea, musika zuzenean
Danza Contemporánea, música en vivo / 35' / TP
Lr 18 S 20:30 Tabakalera / Taba
Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi

Bere hitzak irensten dituzten bi aho. Elkarriketa huts eta arraro bat. Hitz bat erortzen da ahoetatik eta, lurrera erori aurretik, letrarik eta formarik gabe geratzen da. Irtenbide bat proposatzen da: aho batek bere gorputzaren bidez hitz egiten du eta besteak bere gitarraren soinuen bidez. Utz dezagun ezinezko elkarriketa hau gertatzen, eta agian, noizbait, haren ahoek hitzak aurkituko dituzte.

Dos bocas que se tragan sus palabras. Una conversación fallida y extraña. Una palabra cae de sus bocas y, antes de caer al suelo, se queda sin letras, sin forma. Se propone una solución: una boca habla a través de su cuerpo y la otra a través de los sonidos de su guitarra. Dejemos que ocurra esta conversación imposible y quizás sus bocas encuentren las palabras.

Sorkuntza, antzezleak · Creación, intérpretes: Clara Bourdin, Gerard Cucó / Koreografia · Coreografía: Clara Bourdin / Musika · Música: Gerard Cucó



Collectif Tröika

See Saw

Madrilgo Erkidegoa · Comunidad de Madrid

Dantza garaikidea, antzerkia
Danza Contemporánea, teatro / 25' / TP
Ig 19 D 20:00 Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza

LABO XLk DZM Jaialdiaren (Caceres) 2022. edizioan epaimahaikide gisa hautatutako ikuskizuna · Espectáculo seleccionado por LABO XL como jurado en la edición 2022 del Festival DZM (Cáceres).

See-saw festa kezkarri bat da, erritual basati bat, non bere hiru pertsonaiek helburu bakar batekin egiten duten topo: trofeo misterioitsu hori irabaztea. Dantza, akrobazia eta antzerkiaren artean, ikuskizun

See-saw trata de una fiesta inquietante, un ritual salvaje donde sus tres personajes se encuentran con un solo objetivo: ganar ese misterioso trofeo. Entre danza, acrobacia y teatro, este espectáculo absurdo invita al público a olvidar su lógica y pasar por diferentes emociones durante el tiempo de una partida.

Zuzendaritza · Dirección: Collectif Troika / Antzezleak · Intérpretes: Léa Delaporte, Léa Misseri, Melinda Espinoza



Su

Marina by Su

Euskadi · País Vasco / Performance · Performance / 6'
Erabateko estreinaldia · Estreno absoluto
Ig 19 D 21:00 Le Bukowski

Transexualitatea, drag estetika, go-go mundua eta disko performancea nahasten diren lekua. Ahotsak, mezuak, musika trukutzen ditu, diskurtsoa unibertsalizatzeko helburu bakarrarekin.

Un lugar donde se mezclan transexualidad, estética drag, mundo go-go y performance disco. Intercambia voces, mensajes, música, con el único objetivo de universalizar el discurso.

Sorkuntza, zuzendaritza, antzezlea · Creación, dirección, interprete: Iosu Yeregui



Myriam Perez Cazabon

Ez bat eta ez bi, baizik eta... HIRU(3)
Mugimendu tailerra · Taller de movimiento

Euskadi · País Vasco / Dantza · Danza / 180'
Ig 19 D 10:00 Tabakalera / Artisten gunea / Platoa
Izen-emateak · Inscripciones: www.labo.eus

Laborategi proposamen honek elkarri begiratzeari eta entzuteari buruzkoak, unean-uneko eraikitze eta egokitzei buruzkoak eta aukera berri guztiei buruzkoak ekarri nahi ditu, gorputz-paisaiak eta paisaia gorputzuak sortzeko desiratik, kontentplazioari, mugimendu/akzioari eta, batez ere, iruditeria bidea zabalduz. Espazioa, denbora eta gorputzak hartuko dira lanerako zutabe nagusi, hitzari, marrazketari eta sonoritateari espazioa eskeiniz ere, sormena aberasteko erraminta gisa.

4-99 urte bitarteko eta mugimenduzko arteetan eta gorputz praktiketan interesa duen pertsonen zuzendua.

Este laboratorio propone jugar y ahondar a través de la mirada y la escucha, de las construcciones y adaptaciones a tiempo real y abriendo camino a todas las posibilidades, desde el deseo de crear paisajes corpóreos y cuerpos paisajísticos, atendiendo e incitando tanto la contemplación como el movimiento/la acción, y, sobre todo, la imaginación. El espacio, el tiempo y los cuerpos serán los pilares principales de trabajo, aportando espacio a la palabra, el dibujo y la sonoridad como herramientas para enriquecer la creatividad.

Dirigido a personas entre 4 y 99 años, interesadas en las prácticas del cuerpo y las artes del movimiento.

Myriam dantza garaikide arloan sortzaile, dantzari eta irakasle lanetan dihardu 2004 ezkerotik, baita musika, zinea, antzerkia eta argazkilaritza bezalako arteekin eta hainbat konpainia eta artistekin hartu emanean ere.



Eusko Jaurlaritza · Gobierno Vasco / SAREA

Dantza zirkuitua deszifratzen: Parte hartzeko jarraibide praktikoak · Descifrando el circuito de danza: Pautas prácticas para participar

Hitzaldia · Ponencia / 75'
Lr 18 S 10:00 Tabakalera / Sala Ruiz Balerdi Aretoa
Izen-emateak · Inscripciones: www.labo.eus

Hizlariak · Ponentes:

- Aitziber Atorrasagasti. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaria · Directora de Promoción de la Cultura de Gobierno Vasco.
- Nekane Basterretxea. SAREA Euskadiko Antzoki Sareko koordinatzailea · Coordinadora de SAREA Red Vasca de Teatros.

Urtero konpainien aldetik zalantza ugari iristen zaizkigu. Baina beti galdetzen diogu geure buruari ea ez ote den egongo beste modu eraginkorrago bat azaltzeko zer den Dantza Zirkuitua, zertan datzan, zein diren parte hartzeko baldintzak, zer lotura duen Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin, nola egin behar den eskaera, etab. Horregatik, LABO XL jaialdiaren barne elkarriketa bat irekiko dugu. Bertan, Zirkuituan parte hartzeko prozedura modu erraz eta praktikoan azalduko dizuegu, eta zuen zalantzak entzungo ditugu horiei erantzuten saiatzeko.

Todos los años nos llegan un sinfín de dudas por parte de las compañías. Pero nos preguntamos si no habrá otra manera más eficaz de explicar qué es el Circuito de Danza, en qué consiste, cuáles son los requisitos para participar, qué relación guarda con la subvención del Gobierno Vasco, cómo debe realizarse la solicitud, etc. Por ello, dentro de la programación del festival LABO XL abriremos un diálogo en el que os explicaremos el procedimiento de participación de una manera sencilla y práctica y escucharemos vuestras dudas para tratar de responderlas.



Bileratxoak

El rincón del artista y los y las programadoras

Negozio mahiak · Mesas de negocio / 120'
Or 17 V 11:00 Tabakalera / Artisten gunea / Lantegia
Izen-emateak · Inscripciones: www.labo.eus

SAREA Euskadiko Antzoki Sarearekin elkarlanean · En colaboración con SAREA Red Vasca de Teatros.

Bigarren urtez jarraian negozio-mahaiak aurkezten ditugu, non artistaren eta programatzailearen arteko zuzeneko komunikazioa erraztuko dugu. Espazio lasai eta ireki batean, artistek beren proiektuak aurkeztu ahal izango dute, ingurune seguru eta positibo batean.

Por segundo año consecutivo presentamos las mesas de negocio donde propiciamos una comunicación directa entre artista y programador. Un espacio tranquilo donde las artistas podrán presentar sus proyectos en un entorno seguro y positivo.



Javier Mosquera de la Vega

El valor de la cultura de proximidad

Madrilgo Erkidegoa · Comunidad de Madrid
Hitzaldia · Ponencia / 75'
Lr 18 S 11:45 Tabakalera / Sala Ruiz Balerdi Aretoa
Izen-emateak · Inscripciones: www.labo.eus

Primario-ren ibilbidea ezagutaraziko da. Dantza, musika, plastika eta ikus-entzunezkoen arloa uztartzen dituzten proiektuak sortzen dituen kultur elkarteak. Ikuspuntua da kultura eskubide unibertsal gisa ulertzea, praktika artistikoaren bidez komunikaziorako eta gizarte-eraldaketarako tresna gisa balio dezan.

Se dará a conocer la trayectoria de "Primario". Una asociación cultural que se dedica a la creación de proyectos en los que se fusionan danza, música, plástica y audiovisual. Donde el enfoque es entender la cultura como un derecho universal que a través de la práctica artística sirva como herramienta para la comunicación y la transformación social.

Gipuzkoako Dantzagunearrekin elkarlanean · En colaboración con Gipuzkoako Dantzagunea

Hizlaria · Ponente: Javier Mosquera de la Vega. Dantzaria, kultur kudeatzailea, argazkilaria, filmmake-rra, zuzendaria eta dantza jaialdien programatzailea. Baitarin, gestor cultural, fotógrafo, filmmaker, director y programador de festivales de danza.

Primario organiza: el Certamen Coreográfico Danza en Valores, la muestra Danzadas, el proyecto Convergencias & Divergencias, la plataforma Dans Off Project, el festival Gatadans (2002-2023) y el programa de videodanza "Buzón de Baile" de Radio 3 (RTVE).



Inaugurazio ekitaldia

Acto de inauguración

Aurkezpena · Presentación / 30'
Og 16 J 12:00 Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza

Inaugurazio ekitaldia jaialdiari ongi etorria emateko topaketa izango da, jai, arte eta erakunde giroan.

El acto de inauguración será el encuentro encargado de dar la bienvenida al festival en un ambiente festivo, artístico e institucional.

Amaiera ekitaldia

Acto de clausura

Aurkezpena · Presentación / 15'
Ig 19 D 21:00 Le Bukowski

Jaialdiari amaiera emateko ekitaldia. Performancea, musika eta jai giroak jaialdiari agurra emango diete.

Acto de clausura del festival. Performance, música y el ambiente festivo darán el adiós al festival.

Osteguna 16 jueves	12:00	Inaugurazio ekitaldia · Acto de inauguración		Doakoa · Gratuito		Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza	30'
	12:30	Ainhoa Usandizaga: Bihar	Erabateko estrenaldia · Estreno absoluto	Doakoa · Gratuito	Dantza · Danza	Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza	15'
	17:30	Eva Comesaña: Perder a lingua		Doakoa · Gratuito	Dantza · Danza	Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza	30'
	18:00	Rebeca Carrera: Señora		Doakoa · Gratuito	Dantza · Danza	Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza	30'
	19:00	Julio Ruiz: Tocar a un hombre	Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi	LABO lagunak	Dantza · Danza	Tabakalera / Sala Z Aretoa	55'
	21:00	Amahiru: Duzhe gaizki		LABO lagunak	Antzerkia · Teatro	Dabadaba	50'
Ostirala 17 viernes	11:00	Bileratxoak · El rincón del artista		PRO · PRO	Mahaiaik · Mesas	Tabakalera / Artisten gunea / Lantegia	150'
	13:30	NODE: Ama badok + Batu	Erabateko estrenaldia · Estreno absoluto	PRO · PRO	Dantza · Danza	Tabakalera / Artisten gunea / Platoa	20'
	17:30	Marc Fernández & Julio León: (ÍOR)		Doakoa · Gratuito	Dantza · Danza	Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza	15'
	18:00	Funa: Room 22	Estrenaldia estatuan · Estreno estatal	LABO lagunak	Dantza · Danza	Tabakalera / Kutxa Fundazioa Kluba	30'
	19:00	Ana Cotoré: Stage diving	Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi	LABO lagunak	Dantza · Danza	Tabakalera / Sala Z Aretoa	20'
	20:30	Bilaka: Mitologia txikiak	Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi	LABO lagunak	Dantza · Danza	Egia K.E / Gazteszena	60'
Larunbata 18 sábado	10:00	Eusko Jaurlaritzaren · Gobierno Vasco / SAREA	Dantza zirkuitua · El circuito de danza	Doakoa · Gratuito	Hitzaldia · Ponencia	Tabakalera / Sala Ruiz Balerdi Aretoa	75'
	11:45	Javier Mosquera: El valor de la cultura de proximidad		Doakoa · Gratuito	Hitzaldia · Ponencia	Tabakalera / Sala Ruiz Balerdi Aretoa	75'
	13:30	Traversée: Komunikazio inkomunikazioa		Doakoa · Gratuito	Dantza · Danza	Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza	25'
	17:30	Mari Paula: Escambo	Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi	Doakoa · Gratuito	Dantza · Danza	Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza	20'
	18:00	Colectivo Glovo: Xenérica	Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi	LABO lagunak	Dantza · Danza	Tabakalera / Sala Z Aretoa	20'
	19:00	Cía Traspasarte: Máxima Starr	Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi	LABO lagunak	Antzerkia · Teatro	Tabakalera / Kutxa Fundazioa Kluba	60'
	20:30	Colectivo Las Palomas: ¿Qué?	Estrenaldia Euskadin · Estreno en Euskadi	Doakoa · Gratuito	Dantza · Danza	Tabakalera / Taba	35'
Igandea 19 domingo	10:00	Myriam Perez Cazabon: Ez bat, ez bi, baizik eta hiru	Mugimendu tailerra · Taller de movimiento	Doakoa · Gratuito	Dantza · Danza	Tabakalera / Artisten gunea / Platoa	180'
	18:00	Compañía X: Eta orain zer?		Doakoa · Gratuito	Dantza · Danza	Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza	17'
	18:30	Rojo Telón: Transir		Doakoa · Gratuito	Zirkoa · Circo	Tabakalera / Prisma	70'
	20:00	Collectif Tröika: See saw		Doakoa · Gratuito	Dantza · Danza	Tabakalera / Kutxa Fundazioa Plaza	25'
	21:00	Su: Marina by Su	Erabateko estrenaldia · Estreno absoluto	Doakoa · Gratuito	Performance	Le Bukowski	6'
	21:15	Amaierako ekitaldia · Acto de clausura		Doakoa · Gratuito		Le Bukowski	15'
	22:00	Amaierako festa · Fiesta de clausura		Doakoa · Gratuito		Le Bukowski	∞

Antolatzaileak
Organizadores

Babesleak
Patrocinadores

Laguntzaileak
Colaboradores

↑ Jaiadiaren informazio guztia hemen ↑
↑ Toda la información sobre el festival aquí ↑

LABO XL Donostiako espazio eta hizkuntza eszeniko berrien jaialdia Festival de nuevos espacios y lenguajes escénicos de San Sebastián

Andre Zigarroileen plaza 1, Donostia-San Sebastián

Sarrerak eta izen-emateak · Entradas e inscripciones:
www.labo.eus / info@labo.eus

@labo.eus labo_eus LABO XL

NODE Kultur Elkartea. G-75166231 info@node.eus